

ANDRÉS MARIA URRUTIA BADIOLA
EUSKALTZAIN OSO

Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurak 1997ko martxoaren 20an egindako bileran Andrés María Urrutia Badiola notario bilbotarra euskaltzain oso egitea erabaki zuen.

Baziren beste lehiakide bi berarekin batera, postu horretara lehian zihardutenak: Anjel Lertxundi idazle gipuzkoarra eta Andolin Eguskitza hizkuntzalari bizkaitarra. Egia esan, beraietarik edozein aukeratuta ere, erabakia ez zen makurra izango.

Bizitzaren inguruko zertzeladak


Andrés María Urrutia Badiola Bilbon munduratu zen 1954. urteko abenduaren 21ean.

Batxilergo ikasketak Bilboko josulagunen Indautxuko ikastetxean egin zituen eta 1971. urtean amaitu zituen beraiek. Ondorik Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatera igaro zen eta 1976. urtean lizentziatura erdietsi zuen. Lizentziaturan lortu zuen nota, jakina, *bikain* izan zen.

Ondorik notarioa izateko oposizioak prestatzen ekin zion eta 1981. urtean Ondarroako notariotza lortu zuen. Ondarroan 14 urte eman zituen eta 1994. urtean Bilbora pasatu zen; izan ere, Bizkaiko hiribildu nagusiko notario plaza erdiestea

urte askotako lanaren emaitza izan zen, benetan merezitakoa, alajaina!

Bien bitartean, eta aurreko ikasketak egiten ziharduelarik, Andrés hainbat tokitako partaide egiten joan izan da; horretara, Euskaltzaindiaren Jagon Saileko kidea eta, aldi batez bederen, idazkaria izan da. Euskaltzaindiko Lege-ekonomi batzordeko kidea ere izan da.



EEBS batzordeko kidea ere da (Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoa).

I. Jagon jardunaldi ospetsuetan, *Hizkuntzaren erabilera zuzena* izenekoan partaide izan zen 1994. urtean. Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarreko partaide eta hizlaria ere izan zen 1994. urtean.

Deustuko Unibertsitatean gaur egun Zuzenbide Fakultateko irakaslea dugu. Eskolak euskaraz ematen ditu talde bitan eta gaztelaniaz beste baten.

Euskara juridikoaren mintegiaren sortzaile, koordinatzaile eta irakaslea da Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean.

Deustuko Unibertsitatean ere, Zuzenbide Fakultateko batzordeko kidea da.

Foru Zuzenbidea irakatsi du Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikaskuntzen Institutuaren babesean.

1984. urtetik 1988. urtera bitartean Euskararen Aholku batzordeko kidea izan zen, Lege Garapenerako azpibatzaileko kidea zelarik.

Andrés Urrutia legelari

Badago alderdi bat niretzat egundoko garrantzia duena: berak legelari gisa, areago, euskal legelari gisa, egindako lan baten aipamena; izan ere, Euskal Herriko Foru Zuzenbideari buruzko Legea atondu zuen taldeko partaideetarik bat izan zen eta hori aipatzea ez da sekula alferrikakoa izango, lege hori argitaratzeak Euskal Herriko Foru Zuzenbidearen egunerapean izan duen eragina kontutan hartzen badugu. Orduan ezagutu genuen elkar, Bizkaiko Foru Aldundian Patxi Uribarrenekin batera egin genituen batzarrak zirela medio. Niretzat, pertsona gisa, berealdiko eragina izan du aurrerantzean, bai pertsona gisa, bai eta lanbidearen ikuspegitik ere. Niri dagokidanez, gauza bat aipatu nahi izango nuke: ordura arte han-hemenka Etxebarriko eta Markinako baserritarrei aleka jasotzen nizkien lekukotza *juridikoak* arauz-arauz batzeko grina sortu zitzaidan. Hau da, galdu-aginean zegoen mundu bateko azken hondakinak izan zitezkeenak batu behar zirela iradoki zidan Andrésék. Ordura arteko denbora-pasa jarduera zentzudun eta neurridun bihurtu zen berari esker.


Andrés Urrutia legelari euskaldun eta euskaltzale

Baina Euskal Herriko Foru Zuzenbidea batzeaz eta eguneratzeaz gainera, Andrésék beti izan du gogoan lana euskaraz

egin zitekeela eta egin behar zela; eta horren lekuko dira urte-okin hainbat aldizkari, albistari eta argitalpenetan ezagutzera eman dituen lanak. Asko eta maila handikoak dira Zuzenbidearen inguruan argitara eman dituen lanak; nik, beharbada, garai hartan berriztatzaileena izan zelako, *Euskara legebidean* aukeratuko nuke, 1990. urtean, Deustuko Unibertsitatearekin batera argitaratu zuena.

Bestela ere, Andrések egundoko lana egin du terminologia-ren esparruan; hor daude, horren argigarri, UZEI elkarteko ki-de legez, argitara ematen lagundu duen sailtxo hau: *Adminis-trazio Zirkulazio Hiztegia, Zuzenbide Hiztegia eta Hirigintza Hiztegia*.

Nik gehiago ezagutzen dudan alor bat jarri nahi dut orain-goan hizpide. Izan ere, 1994. urtean, proiektu luze eta interes-garri bati eman genion hasiera Zuzenbide Zibilaren eta Adminis-trazio Zuzenbidearen sistema osoak argitaratzeko, Deustu-ko Unibertsitateko Ikaskuntzen Institutuaren babespean (eskerrak eman behar zaizkio Rosa Miren Pagolari) eta Herri



Arduralaritzaren Euskal Erakundearen diru-laguntzarekin (eskerrak, guztion izenean, Josu Erkorekari). Lan horretan, betiko legez, Andrések berebiziko eragina izan du, batik bat, alor juridiko-teknikoak ebazterakoan; beraren aholku teknikoek, gainera, bazuten uztardura ederra beraren hizkuntz senarekin. Beraren laguntza barik, ziur asko, proiektu hau, 1997. urtean burutuko den proiektu hau, ez zen hasi ere egingo. Eta proiektu horren emaitzak agerian daudenez gero, esan liteke, zalantzarik gabe, Euskal Zuzenbidearen esparrura egin diren ekarrietarik handienetakoa dela. Non daude Andrések Zuzenbide karrera ikasi zuen garaiko euskal testuen urritasun hura? Eta nik ikasi nuen garaikoa? Lan handia dago eginkizun, baina egindakoa etorkizun denaren oinarria izango delakoan nago.

Eta lan horrek aurrera egiten dihardu egunokin ere. Ez da Andrés lanak beldurtzen dituenetakoa. Ez, horratio!

Andrés Urrutia literaturgile

Andrések lanak ere eginak ditu literaturaren alorrean, bai sorkuntzaren ikuspegitik, bai itzulpenaren alorretik ere.


Horretara, sorkuntzaren ikuspegitik, hainbat idazlan argitaratu ditu: *Itaka*, *Izaro*, *Pentaleon*, *Su Yen* eta *Ghuseppina*, *Ghuseppina*. Idazlan horiek *Idatz & Mintz* aldizkarian argitaratu zituen eta gero *Orrialdeak* izeneko liburuan eman zituen argitaratu 1992. urtean Labayruren eskutik.

Itzulpena denaz bezanbatean, berriz, galizieratik Méndez Ferrínen «Percival» eta «Marisorgina» lanak argitaratu ditu *Euskal Idazleen Elkartearen aldizkarian*, 1 eta 6. zenbakietan. Álvaro Cunqueiroren «Hareazko erlojua» lana ere argitaratu du *Idatz & Mintz* aldizkarian.

Itzulpenari dagokionez ere, ingelesetik Tolkienen *Silmarihon* eta James Joyceren *Ostatua* lana itzuli ditu. Lan biok *Idatz & Mintz* aldizkarian argitaratu zituen.

Badira beste hainbat artikulua, saiakera eta idazlan idatzi dituenak aldizkarietan han-hemenka sakabanaturik. Bereziki, aldizkari hauek aipatuko ditut: *Karmel*, *Ondarroa*, *Jakin*, *Enseiukarrean*. *Karmel* aldizkarian darabilen *Eskribau Zaharra* gaitzizena izan da beraren mozorroa 1994. urtetik atzera argitaratu dituen lanetarik batzuetan.

Literatura dela eta, badago beste gauza bat ezinbestean aipatu behar dena: Eusebio Erkiagari zion grina. Andrési esker dira ezagun gaur egun Eusebio Erkiagaren itzulpen lan batzuk, batik bat, Zuzenbidearen ingurukoak. Eta Eusebio Erkiagaren lana ezagutzeko nahitaezkoa den idazlan bat ezin daiteke bestela baitakoan iragazten joan: «Arranegitik Arranondora, Eusebio Erkiaga (1912-1993) gomuta nahian», *Karmel* aldizkariaren 206. alean (1993. urteko 4. alean argitaratua izan zena).



Andrés lagun

Eta, niri dagokidala bederen, beraren alderdirik maitatuena aztertu nahiko nuke hemen: Andrés lagun dut eta harro esan dezaket gure adiskidetasuna beharrean landu zela eta, ondorik, gure bizitzaren beste arlo batzuetara hedatu dela bestelako ezer barik. Bat egiteko dugun erraztasuna horren adibidea da. Sarritan batek pentsatzen duena besteari esan barik ere elkarrekin berba egin eta hitzartu baigenuen izaten da. Bat-etortze hori, elkarlaneko laguntasuna eta horiei darizkien *balio erantsiak*, ogasuneko aditu batek esango lukeenez, niretzat gauzarik garrantzitsuenak dira.

Amaitzeko, eta Andrésen lanaren nondik norakoak aditzera emateko, bertora aldatuko dut beraren **bibliografia**rik garrantzitsuena:

- UZEI: *Administrazio, Zirkulazio Hiztegia*, Donostia, 1983, ELKAR. Kolaboratzailea.
- UZEI: *Zuzenbide Hiztegia*, 1. lib., Donostia, 1984, ELKAR. Kontseilaria eta zenbait artikuluren egilea.
- UZEI: *Zuzenbide Hiztegia*, 2. lib., Donostia, Elkar. Kolaboratzailea.
- Euskara legebidean*, Bilbo, 1990, Deustuko Unibertsitatea, 266 orr.
- Euskaldunaren bizkuntz eskubideak: gida liburua*, Donostia, 1990, Euskal Kulturaren Batzarrea. Egilekidea.
- UZEI: *Hirigintza hiztegia*, Donostia, 1994, Elkar. Kolaboratzailea.
- Euskara, Zuzenbidearen hizkera*, Bilbo, 1995, Deustuko Unibertsitatea. Egilekidea Anjel Loberarekin, 488. orr.
- Practicum. Derecho Civil Foral del País Vasco*, Bilbo, 1995, Deustuko Unibertsitatea, 463. orr. Egilekidea A. Atxabal, L. Goikoetxea eta E. Pérezekin.
- Anjel Loberarekin batera Zuzenbide zibil eta Administrazio zuzenbideko eskuliburuaren itzulpenaren koordinatzaile eta zuzentzailea. Argitaratutakoak:

Zuzenbide Zibila. Zati Orokorra, Bilbo, 1996, Deustuko Unibertsitatea, 700 orr.

Administrazio zuzenbidea I. Zati orokorra, Bilbo, 1996, Deustuko Unibertsitatea, 745 orr.

Betebehar eta Kontratueti buruzko Zuzenbidea, Bilbo, 1996, Deustuko Unibertsitatea, 893 orr.

Eskubide errealak eta Ondasun Higiezinaren Erregistroari buruzko Zuzenbidea, Bilbo, 1997, Deustuko Unibertsitatea, 1.021 orr.

—Zenbait aldizkaritan ohiko kolaboratzailea, besteak beste, *Karmel*, *Jakin* eta *Euskera* aldizkarietan. Aldizkari horietan agerturiko arlo juridikoaren artikulatuak honako hauek dira:

«Baserria: lege berriak, bizimodua aurrera», *Karmel* 181, 1987-3; 28-33. orr.

«Euskal zuzenbide foralaren erreforma», *Karmel* 184, 1988-2; 6-15. orr.

«Euskal zuzenbideari buruz, Leizaolaren goratarrez», *Karmel* 188, 1989-2; 20-29. orr.

«Hizkuntz gizaeskubideen bila: RECIFEko adierazpena», *Karmel* 185, 1988-3; 55-62. orr.

«Truke-letra eta euskara», *Karmel* 183, 1988-1; 18-22. orr.

«Euskara, segurtasun juridikoen hizkuntza ote?», *Karmel* 195, 1991-1; 6-10. orr.

«Euskararen "Barne-normalkuntza"z zertxobait», *Karmel* 198, 1991-4; 75-80. orr.

«Bizkaiko Forua, baserritarra ez ote?», *Karmel* 204, 1993-2; 54-60. orr.

«Baserriaren inguruan: oinordetzazko itunak eta Bizkaiko Foru Zuzenbidea», *Karmel* 208, 1994-2; 20-30. orr.

«Derecho, planificación lingüística y euskara», *HAEA/RVAP* 17 (1987), 119-123. orr.

«Euskeraren erabilera zuzena: ikuspegi juridikoak», *Euskera* 39, 1 (1994), 99-119. orr.

«Euskal Hiztegi Juridikoa», *Euskera* 39, 3 (1994), 1279-1298. Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra, Leioa, 1994. 10.03.07.

«Hizkuntz ofizialkidetasunaz», *Jakin* 65 (1991), 39-60. orr.

«Euskararen eta katalanaren legeak. Hamarkada luze baten ondoren», *Jakin* 82 (1994), 37-49. orr.

«Bizkaiko eta Arabako Konpilazioaren 30. urtean: bere euskalpenerako lehen hurbilketa», *Revista del Ilustre Colegio de Abogados del Señorío de Vizcaya* 49, julio-septiembre (1990), 31-102. orr.

- «La Lengua vasca y el proyecto de "Fuero Civil" de Bizkaia y Araba», *Estudios de Deusto*, 39.1 (1991), 277-297. orr.
- «Ondarroa eta Legedi Bikoiztasuna», *Estudios de Deusto* 42.2 (1994), 213-246. orr. Egilekidea.
- Administrazioko euskararen hizkera-mailak eta terminologi arazoak». *Administrazio hizkera eta terminologiaz Jardunaldiak*, Oñati, HAEE/IVAP 1989, 17-24. orr.
- Notas para una exposición del Capítulo V "Disposiciones comunes a las distintas formas de suceder" del Proyecto de Fuero Civil de Bizkaia y Araba», "Libertad civil y Derecho sucesorio"ri buruzko mahainguruan parte hartzea, *Jornadas Internacionales sobre Instituciones Civiles Vascas, 20-22 de noviembre 1991*, Bilbo, 1991, Deustuko Unibertsitatea, 158-165. orr.
- Ámbito territorial y personal de aplicación del Fuero Civil de Bizkaia. La troncalidad y sus efectos en las enajenaciones "inter vivos" de los bienes troncales: "la saca foral", *El Derecho Foral Vasco tras la reforma de 1992 — Jornadas (Bilbo, 1993)*, Iruñea, 1994, Aranzadi, 33-64. orr.
- Oihenart: Euskal Errefrauk eta Foru Zuzenbidea», *Oihenarten laugarren mendeurrena*, Iker-8, Bilbo, 1994, Euskaltzaindia, 329-349. orr.
- La sucesión intestada y la declaración de herederos abintestato en el Derecho Foral Vasco», *Derecho Civil Foral Vasco*, Bilbo, 1995, Eusko Jaurlaritza, Consejo General del Poder Judicial, 307-340. orr.
- Reservas y reversiones en el Derecho Foral Vasco», *Derecho Civil Foral Vasco*, Bilbo, 1995, Eusko Jaurlaritza, Consejo General del Poder Judicial, 341-352. orr.
- Propuestas de simplificación del lenguaje jurídico. Breve reflexión desde el euskara», *Administrazioaren eta Herritarren arteko Komunikazioa bobetu nahian (Hizkera errazteari buruzko Jardunaldiak)*, Donostia, 1995, IVAP/HAEE, 143-147. orr.

Euskal literaturari dagokionez, honako hauek dira beraren obra nagusiak:

a) Itzulpenak galizieratik:

- Mutiko baserriar baten orotzapenak*, Bilbo, 1988, Labayru. Galizierazko literaturaren klasikoaren itzulpena.
- «Percival» eta «Marisorgina» MÉNDEZ FERRIN idazlearen lanen itzulpenak, *Hegats (Euskal Idazleen Elkartearen aldizkaria)* aldizkarian argitaratuak 1 eta 6. zenbakietan, hurrenez hurren.
- «Hareazko erlojua» ÁLVARO CUNQUEIROREN lana *Idatz & Mintz* aldizkarian argitaratua.

b) Itzulpenak ingelesetik:

- J. R. TOLKIENEN «Silmarilion» eta JAMES JOYCEREN «Ostatua» lanen itzulpenak, *Idatz & Mintz* aldizkarian argitaratuak.
- Zenbait idazlanen egilea (*Itaka, Izaro, Pentaleon, Su Yen* eta *Giuseppina, Giuseppina*). Lan horiek guztiak *Idatz & Mintz* aldizkarian argitaratu eta liburu batean bildu ditu: *Orrialdeak*, «Galburua» saila, Bilbo, 1992, Labayru.

c) Euskal kultura eta herriko gaiez zenbait artikulua argitaratu ditu *Karmel* eta *Ondarroa* aldizkarietan:

- «Arranegitik Arranondora. Eusebio Erkiaga (1912-1993) gomuta nahian», *Karmel* 205, 1993-3, 3-26. orr.
- «Arranegitik Arranondora. Eusebio Erkiaga (1912-1993) gomuta nahian», 1993-4; 11-29 (1993-3; 3-26. orrialdeetan ere argitaratua).
- «Behin batez bada ere...», *Karmel*, 1988-1; 101-102. orr.
- Eskribau Zaharra*: «Eskuizkribu baten sotadantza», *Karmel* 212, 1995-3, 67-79. orr.
- Eskribau Zaharra*: «Escribadu gazteentzaco Eusquerazco Instruiziñoiac, Mogelen Erara Moldatuac», *Karmel* 214, 1996-1, 86-91. orr.

«Eusebio Erkiaga, medikuntza arloko itzultzaile: *zain tiratu, zain urralu, zaina bere lekuan sartu*» (I), *Karmel* 218, 1997-2, 3-41. orr.

«Euskal Biltzarra: hizkuntza eta gizartea», *Karmel* 183, 1987-4; 21-26. orr.

«Euskal literaturaren inguruan: mende hasierako «literaturak mortas», *Karmel* 188, 1989-1; 6-13. orr.

Eskribau Zaharra: «Irratiko protokolo baten printzak (I), *Karmel* 207, 1994-1; 97-107. orr.

Eskribau Zaharra: «Irratiko protokolo baten printzak (II), *Karmel* 209, 1994-3; 92-100. orr.

«J. B. Eguzkitza eta Lekeitio, berrogeitamar urte geroxeago (1939-1989), *Karmel* 191, 1989-4; 5-17. orr.

«Larramendi-ren berrehun urteetan (1960-1766), *Karmel* 178, 1986-3; 45-50. orr.

«Ondarroa: astebete bat Augustin Zubikarainen inguruan», *Karmel* 202, 1992-4; 84-90. orr.

«Peru Abarka-ren 6. autua», *Karmel* 176, 1986-1; 20-25. orr.

«Unamuno-ren «Paz en la guerra», *Karmel* 180, 1987-1; 83-88. orr.

«UZEI-ren Hiztegi berria: Zuzenbidea (Martxoak hogeian Deustuko Unibertsitatean irakurritako aurkezpena), *Karmel* 177, 1986-2; 94-97. orr.

«Ondarroa eta Bizkaiko Forua», *Ondarroa* (1983), 23-24. orr.

«Ondarroako sorlegeaz», *Ondarroa* (1984), 10. orr.

«Ondarroa baserri giroan», *Ondarroa* (1985), 47-48. orr.

«Berriatua», *Ondarroa* (1986), 33-34. orr.

«Ondarroako paper zaharren artean», *Ondarroa* (1987), 13-15. orr.

«Ondarroa hogeitamarreko urteetan», *Ondarroa* (1988), 63-68. orr.

«Ondarrutar jatorrizko bat lur santuan: J. Izurrategi», *Ondarroa* (1991), 42-44. orr.

- «Ontzia, kaia, itxas argia», *Ondarroa* (1992), 2-3. orr.
- «Ezkontzaren inguruan», *Ondarroa* (1993), 1-2. orr.
- «Ondarroa gudaldian: EGUNA euskal egunkariaren ikuspegia (1936)», *Ondarroa* (1994), 43-47. orr.
- «Ondarroako euskal idazleak: ikuspegi orokorra», *Ondarroa* (1996), 66-70. orr.
- EGUSKITZA, JUAN BAUTISTA: *Gizarte-auzia. Ugazaba ta langile arteko gora-berak*, Donostia, 1991, EEE — Frein. Eusko Jaur-laritzaren *Euskal Klasikoak* bildumaren barruan kokatzen da. Liburu horren edizioa prestatu eta horretarako sarrera idatzi du.
- «Etxepare, el poeta de una lengua sin Estado», *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*, Gasteiz, 1996, Fundación Sancho el Sabio, 85-112. orr.
- «Olerkaria lege autuetan: Etxepareren *Linguae vasconum primitiae* ikusmira juridikopean», *Enseiukarrean*, 12 (1996), 36-51. orr.

Anjel Lobera Revilla
Bilbon, 1997ko San Isidro egunean